



## Eman hegoak euskarari



### María Zambrano

Adanismoaren aurkako pentsalari zorrotz eta irudimentsua zen

#### ARITZ GORROTXATEGI

**K**iosko batean erosi nuen haren lehen liburua, 'Hacia un saber sobre el alma'. Pentsalari handiei eskainitako bilduma baten barruan zegoen, eta hainbat gairi buruzko artikulu sorta bat zekarren. Txundituta utzi ninduen liburua, bai eta azpimarratzen beteta utzi ere: epikureoak, estoikoak, Nietzsche, Lou Andreas Salome, Freud, Descartes, antzinako greziarrak, Alexandriako eskola, idazlearen lanbidea, denbora eta poesia, egunerokotasunaren logosa, fedea eta arrazoia, bizitza krisian... «Eta zergatik sortzen da etengabegure baitan geure burua gainditzeko irrika hori?», galdetzen du liburu horretako pasarte batean. Horixe baitzen Zambrano-ren irriketako bat, agerikoa

gainditzea, harago joatea. Bazekien inora eramaten ez duten bideak labirinto bihurtu daitezkeela, eta ezer ez dela gurekin hasi. Adanismoaren aurkako pentsalari zorrotz eta irudimentsua zen. Adarkatzen doan pentsamendu-hari baten ondorengotzat hartzen gintuen. Izenez ezagutzen nuen, noski. Cervantes saria jaso zuen lehen emakumea, Ortega y Gasseten ikasle, Unamuno, Machado eta Pérez Galdósen miresle, misio pedagogikoetan batera eta bestera ibilitakoa, Gerra Zibilaren ondorioz erbestearen mikatza probatutakoa.

Liburu hartatik aurrera, haren irakurle bihurtu nintzen. 'Poesía y pensamiento', Antigoniari eskainitako saiakera, 'El hombre y lo divino', 'Los intele-

cutales en el drama de España'... Azken urteotan, poesiara gehiago lerratu naizen aldetik, bereziki erakarri nau hark sortutako «arrazoi poetikoa» kontzeptuak. Arrazoi poetikoa ez ditu sentimenduak ukatzen, bitartekaritza-arrazoi bat da, aktiboa eta ez pasiboa, eta errukiarekin eta maitasunarekin harremanetan jartzen da. Harmonizatzailea ere bada, gizakia errealitatearen plano desberdinekin lotzen baitu, eta bere nihilismoan eta bere arrazoi instrumentalean preso dagoen Mendebalde askatu nahi du. «Aldez aurretiko poesiari gabe», dio Zambrano, «arrazoimenak ezin izango zuten bere hizkera argia artikulatu. Gizakiak bereganatzen duen lehen kontzientziari 'kontzientzia poetikoa' dei geniezaioke».

Horretan badu Paveseren poetikarekin ahaidetasunik. Malagan jaiotako filosofoak poesiaren eta filosofiaren arteko adiskidetasun eta urruntasunaren auzian barrena garamatza arestian aipatutako 'Poesía y pensamiento'n. Poeta ez dago arrazoitik edo etikatik kanpo; bere teoria dauka, bere etika propioa, bere kabuz aurkituak biak, ez filosofoaren bidez. Poesiak zehaztasuna eta estiloa bilatzen ditu, baina ezin du ametsa desagerarazi bere sustraitik. Zambrano ez zuen oso gogoko Valeryren «poesia purua», eta poesia «lohiagoa» aldarrikatzen zuen, poesiari lohi hori haragitik, errailetatik, mundu sentikorretik datorkiolako.

Gaztetan infernura jaitearekin lotzen zuen poesia Zambrano. Infernuetara jaitea bizitzaren beraren hondo ilunean murgiltzea baita. Ideia horrek oihartzun erromantiko argiak baditu ere (batez ere, Gerard de Nerval, eta Jean Paulena), orfismoan du jatorrizko sustraia. Greziar tradizioan, Orfeo infernuetara jaisten da Euridizeren bila, itzaletara arriskatzen da maitasunagatik. «Maita-

sunak infernura jaitsarazten gaitu beti». Gaztaroko idazkietan, Heidegger irakurri aurretik, María Zambrano infernura jaitea bezala ulertzen zuen poesia. Hitz poetikoa da arrazoimenak esan ezin dezakeen edo esan behar ez duenaz mintzatu daitekeen bakarra, bere sorreratik filosofiak infernuari uko egin ziolako. Ezaguna da, halaber, garaiko poetekin (27ko belaunaldikoekin) eta poeta gazteagoekin izan zuen harremana. Kidetasun intelektual handia izan zuen, adibidez, García Lorca, Cernuda edota Emilio Pradosekin, baita hurrengo belaunaldiko José Ángel Valenterekin ere.

Laura Boellak lau emakume pentsalari (Hannah Arendt, Simone Weil, Edith Stein eta Zambrano bera) aztertu zituen izenburu ezin adierazgarriago baten pean: 'Pensar con el corazón'. Kontraesankorra dirudi izenburuak, baina Zambranoen tesuak irakurrita, lausotu egiten da kontraesana, bihotzetik, munduarekiko arduratik eta grinatik ere posible delako pentsamenduari ekarpenak egitea.

### Galeren poetika

#### KARLA FERNÁNDEZ DE GAMBOA VÁZQUEZ

Euskal haur eta gazte literaturak asko zor dio Galtzagorri Elkarteari. Ez bakarrik euskal idazleek, ilustratzaileek eta ipuin-kontalariak haur eta gazteentzat egiten duten lana ezagutzera emateagatik, baita irakurketa-bitartekariei zuzendutako prestakuntza-eskaintza zabalagatik ere. Biko-Teka Galtzagorri elkarteak urtero egiten duen tailer horietako bat da, kasu honetan Iruñeko Udalarekin batera antolatuta. Elkarteak azaltzen duen bezala, «taileraren xedea [da] idazle eta ilustratzaile hasiberriek bikotean elkarlanean jartzea eta elkarlan horretatik album ilustratu baten proiektua sortzea». Elkar argitaletxeak kalera tu duen 'Atzamarra' albuma da, hain justu, Biko-Tekan Asun Agirianok eta Marina García izandako lankidetzaren emaitza.

Asun Agirianok idatzitako lehen

liburua bada ere, nabaria da zenbateraino ezagutzen duen haur eta gazte literaturaren mundua, bide luzea egina baitu arlo horretan. Album honetan, idazleak txikia zenean bere amonarekin zihoala sufritu zuen auto-istripua kontatzen digu. Istripu horretan amonak bizia galdu zuen eta berak, amonaz gain, esku bateko hatz lodia.

Testuaren eta ilustrazioen arteko jolas poetikoa fina da, hain zorritzarekin gertara haurtzaroaren berezko samurtasun eta leuntasunarekin kontatzea lortzen baita. Izan ere, bi kodeen arteko oreka biribila da, batak hitz egiten duenean besteak iradokitzen du. Album honetan elementu guztiak dira garrantzitsu: azala, babes-orriak, portada... xehetasun guztiak osatzen dute kontaketa. Gainera, Marina Garcíaen ilustrazioek garai hartako landa-ingurunera eta baserri girora eramaten gaituzte. Horietatik collagearen eta espazio zuriaren erabilera nabarmentzen dugu, hain sentimendu delikatuak indar handiz islatzea lortzen baitute. Harribitxi hau bi egileen lehen liburua bada, atzetik etorriko zaizkienak irakurtzeko irrikan gaude.



**ATZAMARRA**  
ASUN AGIRIANO/  
MARINA GARCIA

Elkar. 44 or.  
13,66 euro

#### LABUR LABUR

### Enkarni Genua, 2022ko Manuel Lekuona saria

#### EL CORREO

Enkarni Genua (Donostia, 1942) antzerki-sortzaile, idazle eta kultura-dibulgatzailea da aurtengo Manuel Lekuona saria. 1983an sortu zuen saria Eusko Ikaskuntzak, «euskal kulturaren alde egindako lanagatik nabarmendu ziren pertsona ospetsuen obra osoa goratzeko».

«Txotxongiloen bidez, Enkarni Genuak euskal mitologiaren kondairak biziberri tu eta gizarteratu ditu, ahozko transmisioaren bidez haurrenganaino helduz, euren iruditeria aberastuz eta euskal ahozko tradizioa balioan jarriz» nabarmendu dute Eusko ikaskuntzako ordezkariak.

1971n, Txotxongillo taldea sortu zuen Manolo Gomezekin batera, eta mende erdi baino gehiagoan, txotxongilo-antzerkia euskaraz egin du hainbat herrialde, hiri, eskualde, herri eta auzotan, talde horrekin. Idazle gisa, hainbat genero-



Enkarni Genua bere panpin Marionarekin.

tako haur eta gazte literaturako lanak (antzerki eta telebista gidoiak, ipuinak, diskoak...) eta material didaktikoak argitaratu ditu. 1992tik aurrera, Titirijai Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia martxan jartzen lagundu zuen, baita Topci Txotxongiloaren Nazioarteko Zentroa sortzen ere, biak Tolosan.

#### SALDUENAK

##### FIKZIOA

###### 1 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

###### 2 Bar Gloria

Nerea Ibarzabal. Susa

###### 3 Azken Etxea

Arantxa Urretabizkaia. Pamiela

###### 4 M. Ama Eme Ume

Estitxu Fernandez/Erika Lagoma. Elkar

##### EZ FIKZIOA

###### 1 Nikole bijotzekua

Edorta Jimenez. Elkar

###### 2 Mandamentu hipermodernoak

Iñigo Martinez. Elkar

###### 3 Kurdistan argi bat ekialde hurbilean

Urtzi Urrutikoetxea. Elkar

###### 4 Gaueko eztabaidak

Agustin Arrieta. Erein